Iruñea

Euskalerria Irratiak haurrentzako egundoko jaialdia eginen du Labriten

Festa maiatzaren 17an eginen dute, eta hainbat taldek hartuko dute parte

Euskalerria Irratiak haur jaialdia antolatu du maiatzaren 17rako. Festa Labrit pilotalekuan eginen dute, arratsaldeko 17:30etatik aurrera, eta zer ikusi eta zer entzun ez da faltako: pailazoak, haur kantariak, 'Goenkale'-ko aktoreak. 'Xingulu-Mangulu', irratiko haurrentzako saioko jaia izanen da.

Enrike Etxarte / **Iruñea**

IRUÑEKO Euskalerria Irratiaren gainean zer erran handia bada bolada honetan: antena berriaren arrakasta dela, entzulearen hedapena dela, Larreko sariaren afaria dela. Baina egutegiari erreparatzera, behintzat, datorren astean eginen duten haur jaialdia aipatu behar da. Duela bi urte antolatu zuten lehendabizikoz, eta orduan bildu zen jendetza ikusita animatu dira bigarrenez antolatzera, Euskalerria Irratia elkarteko Elena Ezkietak erran digunez, «irratia gizarteratu behar dugu, eta, xede hori jotzeko zenbait gauza antolatzen ditugu urtean. Datorren asteko jaialdian Iruñerriko haur euskaldunak erakarri nahi ditugu, gero eta gehiago baitira, eta irratiak ezin dezake bazter utzi adin tarte jendetsu hori».

Horregatik, zortzian behin, larunbatero, *Xingulu-Mangulu* saioa egiten dute, eta bertan Iruñerriko ikastola eta ikastetxe elebidun guztiek hartzen dute parte, txandaka. Bitxia da, gainera, saioaren izena, eta Mikel Bujanda zuzendariak gogoan ongi gordeta dauka nola hartu zen: «Ba, aita Damaso Intzakoaren esaera zaharren liburuan topatu genuen hitz-joko hori —xiguli-mangulu— haurrei Ultzama aldean kantatzen zaiena, eta, huraxe aukeratu. Eta bigarren, edo hirugarren saioa egiten ari ginela, ez zigun, bada, emakumezko batek telefonoz hots egin esateko berak txikitan ikasitako esamoldea zela hura? Eta emakume hura etxekoandrea zen, euskaldunzaharra, nongoa eta Eugiko alaba, eta, esaldi edo kantu osoa abestu zigun: Xinguli-mangulu, gure haurra nongo, ona bada etxeko, gaixtoa bada, kanpoko, tturrut, tturrut, ez, ez, haur hau guretako».

Jaialdia, beraz, datorren larunbatean eginen da, maiatzaren 17an, Iruñeko Labrit pilotalekuan, arratsaldeko 17:30etan hasita. Nafarroako Kantu Txapelketan ibilitako haur batzuk ariko dira lehenbizi: Zubiriko Xabier Zubiri ikastetxe publikoko haur kantariak, Burlatako Ermitaberri ikastetxekoak, eta Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolako dantzariak. Ondoren, haurren eta helduen zangoak ederki dantzarazten dituzten lagun irri-eragileek segida emanen diote arratsaldeari, hots, Kiki, Koko eta Moko ariko baitira haurren jostagarri. Hortaz landara, bihar zortziko jaialdiak bertzerik ere izanen du, aurkezpen lana bi lagun ezagunek eginen baitute, *Goenkale*-ko Sarak eta Karlosek, hain zuzen, edota, bataiarriko izena erabiliz, Anabel Arraiza lakuntzarrak eta Joxe Kruz gipuzkoarrak. Sarrerak salgai daude Euskalerria Irratian, 400 pezetan (16 libera) edo, bertzenaz, erosi ahal izanen dira Labriten jaialdiaren egunean. ✗

Euskalerria Irratiko kideek orain dela bi urte ospatu zuten haurrentzako jaialdia.
EUSKALERRIA IRRATIA

Abartzuza

Euskararen Eguna ospatuko dute Irantzuko Monasterioan asteartean

Lizarraldeako A eta D ereduko ikastetxe publikoek antolatuta

Erredakzioa / **Iruñea**

LIZARRALDEAKO ikastetxe publikoetako A eta D ereduko ikasle, irakasle eta gurasoek antolatuta, zazpigarren aldiz Euskararen Eguna ospatuko dute asteartean Abartzuzan, Irantzuko monasterioan. Euskararen alde aurten prestatu ekitaldien artean azkena izanen da, baina ez bakarra. Izan ere, asteartean Zudairin bildu ziren Lezaun, Villatuerta, Lizarra, Deikaztelu, Allo, Oteitza, Abartzuza, Gares, Obanos, Zirauki, Arronitz eta Zudairiko ikastetxeetako Haur Hezkuntzako eta Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako ikasleak. Eta atzo, berriz, maila bereko Lerin, San Adrian, Mendavia, Lodosa, Sartaguda eta Andosillako 220 ikasle inguru elkartu ziren Mendavian, Euskararen Eguna ospatzeko.

Antolatzaileek, iaz bezala, hiru egunetan banatu dituzte Euskararen Eguneko ospakizunak aurten ere, neskamutil gehiegi batera ez biltzeko, bestela, ezinezkoa gertatuko bailitzateke hainbat ekitaldi behar bezala egitea.

Astearteko jaia, esan bezala, Abartzuzako Irantzuko monasterioan izanen da, eta lehen aipatu ikastetxe guzietako Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako, hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailako ikasleek —400 inguru denetara— parte hartuko dute.

Eguneko ekitaldiak goizeko hamarretan hasiko dira. Ordu horretan, talde guztiei harrera egin eta hamaiketakoa hartuko dute. Ondoren, ordu erdi beranduago, abestean duten trebezia erakusteko aukera izanen dute denek, euskal karaokea eginen baitute.

Eta kantuan aritu ondoren, arratsaldeko ordubata baino ordu laurden lehenago, zezen entzierroa izanen da, buruhandien konpartsak alaiturik. Denen gustuko ekitaldirik, beraz, ez da faltako Abartzuzako bestan. Zezen entzierroa amaituta, ordubata puntuan, elkarrekin bazkalduko dute partaide guztiek.

Euskararen Aldeko hilaren 13ko besta horretan pailazoek ez dute huts eginen. Ordubi eta erdietan euren ikuskizuna aurkeztuko dute Takolo, Pirrutx eta Porrotx pailazo ezagunek. Eta laurak aldera, ekitaldi guztiak amaituta, agur esateko ordua iritsiko da.

Datorren urteko Euskararen Egunean, dena den, izanen dute berriro elkarrekin besta egiteko aukera. ✗

Atarrabia

Astelehenean hasiko da emakumeei eskaini astea

Laugarren aldiz ospatuko dute ostiralera arte

Erredakzioa / **Iruñea**

ATARRABIAKO UDALAK antolatuta, Udaberriaren eta Emakumearen Astea ospatuko dute laugarren aldiz, astelehenetik ostiralera bitartean. Egun horietako ekitaldiak ezezik, herriko hainbat emakumek egindako ikastaro eta tailerretako lanekin erakusketa ere eginen dute jubilatuen elkartean, asteartetik ostiralera arte.

Egitarauari dagokionez, astelehenean *Zeresanik ba al dugu emakumeok?* izenburupean mahai-ingurua eginen dute Udaletxeko plazako jubilatuen elkartean, arratsaldeko 19:00etan. Idoia Altadill, Blanca Fernandez, Begoña Arrieta eta Celia Oizek hartuko dute parte.

Hilaren 13an, asteartean, La Trova taldearen kontzertua izanen da, arratsaldeko 19:00etan, Kultur Etxeko areto nagusian, eta biharamunean, Maite Leonen Fundacion Psicoballet taldea ariko da udal zineman, arratsaldeko 19:00etan.

Ostegunean, *Sabina* antzerki lana ikusteko aukera izanen da Atarrabiako udal zineman, 19:00etan. Ostiralean, azkenik, herri bazkaria eginen dute Atarrabiako emakumeek, bai eta *Los puentes de Madison* filmea ikusteko aukera ere. ✗

Noain

Hiru lehiaketa antolatu ditu Kultur Patronatuak

Margo lehiaketa hirugarren aldiz eginen dute

Erredakzioa / **Iruñea**

NOAINGO Kultur Patronatuak, udaberria ospatzeko antolatutako egitarauaren barruan, hiru lehiaketa iragarri ditu herritarrek parte har dezaten. Lehenengoa, margo lehiaketa da, eta hirugarren aldiz egingo dute aurten. Elortz bailarako hamabost urtetik gorakoek hartu ahal izanen dute parte. Gaia librea da, eta hilaren 16an amaituko da lanak aurkezteko epea. Irabazleak 30.000 pezetako saria irabaziko du, eta bigarrenak 15.000 pezetakoa.

Bestalde, bigarren aldiz, zeramika lehiaketa eginen dute, aurrekoa bezala, bailarako hamabost urtetik gorakoei zuzendua. Lanak aurkezteko epea bera da, eta irabazleek jasoko dituzten sariak ere berdinak dira.

Azkenik, eta udaberriak herriko etxeetako balkoietan duen eragina erakusteko, balkoi eta lore-apainketa lehiaketa antolatu du Noaingo Kultur Patronatuak. Epaimahaiko kideek ekainaren bigarren hamabostaldian epaituko dituzte lehiaketan parte hartuko duten balkoi eta leihoak.

Irabazleak 15.000 pezetako saria eskuratuko du, eta bigarren sailkatuak 5.000 pezetakoa. ✗